


# Emma Roca Rodríguez

Bartzelona, Katalunia, 1973-2021



"Beti borrokatu izan naiz sinetsi dudan horren alde, gizartearen jarraibideei edo iritziei jaramon handirik egin gabe."

## **Biokimikaria, mendi-lasterkaria, suhiltzaile profesionala eta ekintzailea**

Ultramaratoilarien osasunaren mugen inguruko doktoretza egin zuen ingeniaritza biomedikoan. Kirol-ibilbide oparoa izan zuen mendian eta abentura-kiroletan. Kataluniako Generalitateko erreskate-taldean aritu zen lanean.